ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko maiatzaren 18a, ostirala • 57 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

**Zerga zorren likidazioak, interesdunei berei zuzenean jakinarazi ezin izan zaizkienak**

Susana Díaz de Arcaya Cubillok, Iruraiz-Gaunako Udaleko alkateak, aditzera ematen du Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 108. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, bi aldiz ahalegindu ondoren, interesdunei jakinarazpena eskura ematea ezinezkoa dela ikusirik, zerga zorra duten behin-behineko likidazio hauek izapidetu direla:

| INTERESDUNA | BALIOA | ZENBATEKOA | KONTZEPTUA |
|---|---|---|---|
| Arquitectura y Tratamiento de madera SL | 2017/0000000674 | 74,85 | TMIZ 2017 |
| Ander Echebarría Caño | 2017/0000000857 | 43,99 | TMIZ 2017 |
| Honorio Ferrer Genaro | 2017/0000000887 | 74,85 | TMIZ 2017 |
| Román Martínez de Ilarduya Ibáñez de Ezcaray | 2017/000003791 | 2,90 | Landa OHZ 2017 |
| Flora Pérez de Villareal Quintana | 2017/0000003881 | 2,90 | Landa OHZ 2017 |
| Elisa López de Heredia Aguirre | 2017/0000003737 | 9,60 | Landa OHZ 2017 |
| Jerónimo López de Eguilaz López de Ibarreta | 2017/0000003725 | 2,90 | Landa OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astulez Martínez de Ibarreta | 2017/0000003458 | 5,71 | Landa OHZ 2017 |
| Primo Saez de Eguílaz Fernández de Ocariz | 2017/0000003959 | 94,60 | Landa OHZ 2017 |
| Ignacio Arribillaga Olasagasti | 2017/0000001732 | 15,19 | Hiri OHZ 2017 |
| Ignacio Arribillaga Olasagasti | 2017/0000001733 | 0,96 | Hiri OHZ 2017 |
| Ander Echebarría Caño | 2017/0000002011 | 242,77 | Hiri OHZ 2017 |
| Ander Echebarría Caño | 2017/0000002012 | 33,35 | Hiri OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astúlez Martínez de Ibarreta | 2017/0000001763 | 0,68 | Hiri OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astúlez Martínez de Ibarreta | 2017/0000001764 | 0,94 | Hiri OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astúlez Martínez de Ibarreta | 2017/0000001762 | 1,72 | Hiri OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astúlez Martínez de Ibarreta | 2017/0000001761 | 3,40 | Hiri OHZ 2017 |
| Juan Carlos Astúlez Martínez de Ibarreta | 2017/0000001760 | 1,41 | Hiri OHZ 2017 |
| María Rosario Segura Díaz de Arcaya | 2017/0000003202 | 110,34 | Hiri OHZ 2017 |
| Intabidea SLU (eratzen) | 2017/0000001362 | 108,19 | Hiri OHZ 2017 |
| Ramón Vega Antón | 2017/0000003296 | 33,26 | Hiri OHZ 2017 |
| Ramón Vega Antón | 2017/0000003295 | 1,38 | Hiri OHZ 2017 |
| Ramón Vega Antón | 2017/0000003294 | 2,52 | Hiri OHZ 2017 |
| Rosa Fernández de Monje Argomaniz | 2017/0000002083 | 12,91 | Hiri OHZ 2017 |
| M. Pilar Martínez de Antoñana Martínez de Arenaza | 2017/0000002599 | 51,37 | Hiri OHZ 2017 |
| M. Pilar Martínez de Antoñana Martínez de Arenaza | 2017/0000004251 | 40,00 | Zabor tasa, 2017 |

Interesa dutenei edo haien ordezkariei dei egiten zaie jakinarazpena hartzera etor daitezen udal idazkaritzara (kale bakarra, 4, Azilu, Araba), astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00etara, lanegunetan.

Jakinarazpena: interesdunak edo haren ordezkariak hamabost egun izango ditu udal idazkaritzara joateko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bertaratzeko epea igaro, eta interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela esan nahiko du legezko ondorio guztietarako, bertaratzeko emandako epea bukatu ondorengo egunetik aurrera.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ordaintzeko lekua: udal honen idazkaritzan (kale bakarra, 4, Azilu, Araba), astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00etara, lanegunetan. Kutxabankek Dulantzin daukan bulegoan ere egin ahal izango da ordainketa.

Ordainketa errekargurik gabe egiteko epea: hilabete, bertaratzeko deia egin eta hurrengo egunetik aurrera edo hori egiteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Premiamendu aldia: borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, errekargua eta interesak ordaintzeko eskatzen duen betearazte aldiari ekingo zaio, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26. eta 28. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Kobratu beharrekoari ehuneko 5eko errekargua ezarriko zaio, harik eta premiamendu probidentzia jakinarazi arte. Premiamendu jakinarazpen horrek ezarritako epean ordainduz gero, ehuneko 10eko premiamendu errekargu murriztua ordainduko da. Epe hori igarota, berriz, ehuneko 20ko errekargua, berandutze interesak eta eragindako kostuak.

Errekurtsoak: berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Iruraiz-Gaunako alkateari, eta horretarako hilabete egongo da, agertzeko deia egin eta hurrengo egunetik aurrera edo hori egiteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertzeko errekurtsoaren esanbidezko edo isilbidezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, edo sei hilabetekoa, ezetsitzat eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere jartzeko aukera dago.

Etetea: errekurtsoa jartzeak ez du etengo likidazioa ordaindu beharra, ez bada etendura eskatzen errekurtsoa aurkezteko epearen barruan, eta zerga zor osoa (printzipala gehi berandutze interesak) estaltzeko adinako bermea jartzen (kuota nagusia gehi berandutze interesak).

Azilu, 2018ko maiatzaren 8a

*Alkatea*
*SUSANA DIAZ DE ARCAYA CUBILLO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.05.18 05:33:46 Z